ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

BALDINTZA TEKNIKOAK

EUSKARA PRAKTIKATZEKO BERBALAGUN ZERBITZUA EMATEKO

Espediente-zenbakia: C/1369 behin-behinekoa
Kontratu-mota: Zerbitzua
Kontratuaren xedea: EUSKARA PRAKTIKATZEKO BERBALAGUN ZERBITZUA EMATEA.
Kontratatzeko prozedura: Irekia Super-sinplifikatua
Espedientea tramitatuko duen arloa: Udal euskara saila

0. SARRERA

Ondarroako Udalak onartu du Euskara Sustatzeko Ekintza-Plana 2019tik 2022ra arteko aldirako. Planaren lehendabiziko helburu estrategikoa Euskararen jabekuntza da eta, horren baitan, euskalduntzearen esparruan, neurri hau dator zehaztuta:

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak	* *Berbalagun egitasmoa: Euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenekin elkartzen dira eta osatzen diren berba-taldeetan parte-hartzen dute.*

Beraz, kontratazio honen xedeak lotura zuzena du onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin. Ohar bedi Plan hori luzatzeko proposamena lantzen hasi da udal euskara batzordean.

Berbalaguna izeneko programa jarri zen martxan Ondarroan, lehendabiziko aldiz, 2006an. Orduan, Ondarroako Udalak diruz lagunduta. 2019 urteaz geroztik, kontratazio bidez gauzatu da. 2021-2022 ikasturteko azken datuen arabera, 25-30 lagun parte hartzen ari dira programan.

1. KONTRATAZIOAREN XEDEA

Kontratazio honen xedea da euskara praktikatzeko programak antolatu, kudeatu eta garatzea Ondarroako 16 urtetik gorako bizilagunek parte har dezaten.

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzua 2022-2023eko ikasturtean emango da, irailean hasi eta ekainean amaitu. Ez da zerbitzurik emango udako hilabete hauetan: uztaila eta abuztuan. Kontratua luzatuz gero, ostera, zerbitzua berriz ere hasiko da 2023ko irailaren 1ean (2023-2024 ikasturtea) eta ekainean amaitu.

3. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Udaleko euskara arloa da zerbitzu honen arduraduna eta arduradun teknikoa, berriz, udal euskara teknikaria. Adjudikaziodunak haiekin izango du hartu-emana.

Zerbitzuaren barruan sartzen dira jarduera guztiak diseinatu, antolatu, sustatu, zuzendu eta gauzatzeko betebeharra. Zerbitzuak ezaugarri hauek izango ditu:

- **Eginkizun nagusia**: euskararen ahozko erabilera sustatzea, euskara praktikatzea egoera informaletan. Bidelagunen egitekoa ez da sekula izango euskara irakasle izatea.
- **Hartzaileak**: euskara praktikatu nahi duten Ondarroako herritarrak, 16 urtetik gorakoak.
- **Partehartzaile-kopurua**: 40 partehartzaile arteko kopuruari eman beharko zaio zerbitzua eta, gutxienez, 12 lagunek parte hartu beharko dute.
- **Prezio publikoa**: doakoa.
- **Izen-ematea**: udaleko inprimakia bete beharko da. Izena emateko kanpaina ikasturte hasierarekin batera egingo bada ere, zerbitzuaren ezaugarriengatik, urte osoan zehar egongo da aukera izena emateko.
- **Maiztasuna**: izena emateak astean behin biltzeko konpromisoa dakar.
- **Taldeak nola osatu**: Aintzat hartuko dira parte-hartzaileen euskara maila, interesak eta afizioak, eta horren arabera osatuko dira taldeak. Hobetsiko dira hirukoteak eta bikoteak.
- **Komunikazioa**: komunikazio-kanpainak egingo dira bai izena emateko bai antolatutako ekintzen berri emateko; era honetara egin ere:
  - Publizitatea adjudikaziodunaren esku geratuko da eta erabilitako euskarri guztietan Ondarroako Udala antolatzaile moduan agertu behar da.
  - Komunikazio-ekintza guztiak, adjudikaziodunak bere bitartekoak erabilita zabalduko baditu ere, udaleko komunikazio bulego honetara bidaliko dira: komunikazioa@ondarroa.eus zabalkundea handiagoa izateko.
    Komunikazio-ekintza moduan hartuko dira aurkezpen ekitaldiak edo ikasturte amaierako ekitaldiak egitea.
    Ekitaldiak antolatzen direnean (ekintza puntualak, tailerrak, irteerak, hitzaldiak, ikastaroak, e.a.) horien gaineko informazioa aurretiaz zabalduko da programako parte-hartzaileek zein orokorrean interesa duten herritarrek aukera izan dezaten parte hartzeko.
- **Ekintza osagarriak**: Adjudikaziodunaren ardura da ekintza hauek antolatzea: ikasturte hasierako aurkezpen ekitaldia, ikasturte amaierakoa eta Mintzodromoa.
  Tailer, hitzaldi eta era horretako ekitaldiak Ondarroan egin behar badira, udal instalazioak erabili daitezke, aldez aurretik baimena dagokion moduan eskatuta.
- **Zerbitzuaren jarraipena**:
  - Taldeen jarraipena egingo da, gutxienez, hilean behin: noiz elkartzen diren, bajak, gorabeherak, asebetetzearen neurketa...
  - Zerbitzuaren martxa aztertzeko bilerak egingo dira udalarekin, gutxienez, hiru hilabetetik behin. Eta, udalak eskatuz gero, udal euskara batzordearekin.
- **Dokumentazioa**: Ikasturte hasierako proposamena eta ikasturte amaierako memoria.
  Memoriaren edukiak:
  - Talde-banaketa eta osaera eta lagun-kopurua, maiztasuna eta lekuak adieraziz.

- Partehartzaileen datuak: izen-abizenak, sexua, adina, helbidea eta telefonoa/posta elektronikoa.
- Ikasturtean izandako izen-emateak eta baja-kopurua.
- Ekintza osagarriak: egutegia, lekua eta partaide kopurua.
- Kronogramako fase bakoitzeko ordu-kopurua.
- Dokumentazio grafikoa: kartelak, sare sozialetako deiak eta Berbalaguneko partehartzaileekin ateratako argazkiak.
- Helburuen betetze-maila eta hurrengo ikasturteetarako proposamenak. Asebetetze inkesten emaitzak.

4. KRONOGRAMA

Ekintzak	Egutegia (hilabeteka)									
	I	U	A	A	U	O	M	A	M	E
IZEN-EMATE KANPAINAK										
Kartelak ipini										
Prentsara zabaldu eta iragarkia argitaratu										
Sare sozialetan iragarri										
Aurkezpena euskaltegian										
Urte berrian indartzeko kanpaina										
PARTAIDEAK ETA TALDEAK										
Izenak jaso eta deitu										
Taldeak sortu, lehen hitzordua, argibideak										
Taldeak osatu eta partaideak datu-basera sartu										
Partaideen asebetetzea neurtu										
Datu-basea aldiro elikatu										
FUNTZIONAMENDUA										
Ikasturteko plangintza egin eta adostu										
Jarraipen bilerak udalarekin										
Ikasturteko memoria idatzi eta aurkeztu										
EKINTZA OSAGARRIAK / KOMUNIKAZIOA										
Ekintzen egutegia adostu jarraipen batzordean										
Ekintzen agenda zabaldu sare sozialetan										
Ekintzen informazioa hedabideetara bidali										
DINAMIZATZAILEAREN PRESTAKUNTZA ETA SEGIMENDUA										
Lehenengo datuak jaso (Jarraipen inkesta)										
Lanen deskargua eta balorazioa										
PARTAIDE KOPURUA HANDITU										
Euskaltegiko ikasleei aurkezpena egin										
Aurretik ibilitako Berbalagunekin egon										
TALDEEN FUNTZIONAMENDU EGOKIA BERMATZEA										
Taldeak martxan ipinitakoan eurekin egon										
Whatsap bidez harremana mantendu										
Bidelagunak lotu Facebook eta Twiter bidez										
C1 eta B2ko ikasleekin berba egin										
EKINTZA OSAGARRIAK ANTOLATZEA ETA PARTE HARTZEA SUSTATZEA										
Mintzodromoa antolatu Euskaraldiaren barruan										
Eskualdeko irteera										

5. GIZA BALIABIDEAK ETA EGINKIZUNAK

Gaitasun profesionalari dagokionez, dinamizatzaileak Unibertsitate titulua (gutxienez, diplomatura edo gradu-titulua) izan beharko du eta C1 mailako euskara titulua. Gaitasun profesional hori langilearen kurrikulumarekin eta hori egiaztatzen duen agiriekin egiaztatuko da.

6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoarekin batera proposamena balioesteko eredua bete beharra dago (I. eranskina) dagozkion egiaztagiriekin eta horretan zehaztuko dira hauek guztiak:

Oinarri pedagogikoa eta bitartekoak: oinarrizko metodologia propioa izatea eta ikasgela birtuala eskaini ahal izatea

Programari buruzkoak: Berbalagun programa edo gisa horretako programaren bat eskaini izana edozein udalerritan. Berbalagun programa edo antzekoak dituzten elkarteekin koordinazioa izatea.

Dinamizatzaileari buruzkoak:C2 euskararen agiria izatea. Glotodidaktikarekin, hizkuntza normalizazioarekin edota aisialdi eta talde dinamikarekin erlazionatutako prestakuntza egin izana (> 200 ordu).

7. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIA

Gutxieneko partaide kopuruak izena emango ez balu eta ez balitz posible zerbitzua ematea taldeak osatu ezinagatik, kontratua dagokion fasean amaitu eta bertan behera geratuko litzateke. Kasu horretan, ordura arte egindakoaren memoria aurkeztu beharko luke adjudikaziodunak.

Ondarroa, 2022-05-10

Maite Rey
Udal euskara teknikaria

ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

BALDINTZA TEKNIKOAK

EUSKARA PRAKTIKATZEKO BERBALAGUN ZERBITZUA EMATEKO

I. ERANSKINA

ESKAINTZAK BALIOESTEKO EREDUA

Eskaintza ekonomikoarekin batera proposamena balioesteko eredu hau bete beharra dago eta dagozkion egiaztagiriekin osatu.

Puntuatu beharreko atala		Agiri-mota zehaztu
Oinarri pedagogikoa eta bitartekoak:		
• oinarrizko metodologia propioa izatea		
• Ikasgela birtuala eskaini ahal izatea		
Programari buruzkoak:		
• Berbalagun programa edo antzekoak edozein udalerritan.		
• Berbalagun edo antzekoen koordinazioa		
Dinamizatzaileari buruzkoak:		
• C2 euskararen agiria izatea.		
• Prestakuntza glotodidaktika /hizkuntza normalizazio gaietan		
• Prestakuntza aisialdi/talde dinamika gaietan		